

JATORRIA

Mogeldarrak jatorriz Milagro (Nafarroa) eta Alfarokoak (Errioxa) ziren, asabak bertako familia leinargi eta handiketakoak izanik, ustez. Ogibidez osagileak ziren eta batetik bestera ibili behar izan zuten. Juan Antonio Mogelen aitona Markinan finkatu zenez, aita hemen jaio eta Xemeingo Gabriela Urkiza-rekin ezkondu zen. Hala ere, 1771n bere aita-ama eta aitona-amonen aldetiko nobletasun, hidalgia eta odol garbitasuna frogatu behar izan zuen, bizkaitarrei zegozkien eskubide guztiak eskura ahal izateko.

Juan Antonio Eibarren jaio zen, aita han ari zela. Lau urte zituela Debara aldatu ziren eta beste lau urtetara berriro Markinara itzuli.



AITA, ILUSTRATU BIKAIN

Juan Ignacio Mogel Almazán, Peñafloridatarren osagilea (Ramón M.^a Munibeko, Konde ospetsuaren oinordekoa, zaindu zuen azken lau hilabetez) eta adiskidea, ilustratu bikaina izan zen. Medikuntza gaiei buruzko liburuxko baten egile, Adiskideen Batzarrean (*Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*) Medikuntza eta Albaitaritzan ez-erik Nekazaritza arloan ere ihardun zuen eritasun eta izurriteak galerazten, laboreak ugaltzeko esperimenduak egiten, iker eta zabalkunde lanetan.

Izen bereko bere seme Juan Ignacio Mogel Urkizak (Juan Jose eta Bizenta Mogel idazleen aita) jarraitu zion, esandako erakundearen «bazkide irakasle» izanik eta inokulazioa zabaltzen arituz.

J.A. Mogel bera ere Adiskideen Batzarrearen mandatuz Azpitarte egiten ari zen hiztegirako laguntzen ibili zen, 1784ean berrehundik gora hitz bidaliz. Ilustratu bikainak izan arren, Mogeldarrak euskalzaleak eta elizarakoak ziren.

MOGELDARRAK, «ADISKIDE»

Joan Jose eta Bizenta Mogelen aita da Adiskideen Elkartearen lan hori aurkeztu zuen Joan Ignazio Mogel eta Urkiza hau (1773). Haien osaba zen Joan Antonio gure idazlea.

MILAGRO

Nafarroako herri honetan eta Alfarro-n (Errioxa) zituen bere erroak Mogeldarren sendiak.



HEZIKETA HAUTATUA

Aragoako jesuitek Nobleentzako Erret Mintegi bat zuten Calatayud-en aiton-seme eta etxe oneko gaztetxoak kristau birtute, gizabide eta letretan hezteko, hots, «zaldun kristau» bati zegokiokeen bezala. Espainiako ia herrialde guztietakoak eta are indietakoak joaten ziren horra, zazpitik hamasei urte bitartean, eta euskaldunak ere bai, hemen halako ikastetxerik ez zegoenez gero. Gainera, Aragoako jesuiten ikastetxeak esperimientazio zientifikoari irekita zeuden. Bestalde, J.A. Mogelen aita eta aitona Aragoa aldetik ibiliak ziren osagiletzako ikasketa edo ogibidean.

GAVON-SARIAC (1762)

Xabier Munibe Peñafloridako kontearen sendian, izan zuen mediku bezala sarrerarik Joan Antonioren aitonak, eta hau bera ere Adiskideen lankidea izan zen. Musikari eta euskaltzale bezala honelako lanak eman zituen X. Munibek.



AIZPITARERen HIZTEGIA

Adiskideek sustatu nahi izan zuten euskararen aldeko oinarritzko lan bat hiztegi honena izan zen (1773). J.A. Mogegek hitz-zerrenda bat bidali zion Elkarteari (1784) eta 1785eko 3.483 horien artean jaso ziren, noski.



4


Hor ikasi zuen Juan Antonio Mogelek, batez ere Filosofia, irakasleek hala erabakirik, hiru urtez, eta latinez, esangabe doa. Zorionez, irakasle bikain bat izan zuen, Bartolome Pou mailorkar jesuita, Letra eta Filosofiaren berriztazailea. Honen Theses Bilbilitanae edo Calatayud-eko Tesiak deitu obraren (Filosofiaren Historiako eskuliburua) alde batzu J.A. Mogelen latinezko hitzaurre batekin argitaratu ziren, beronek 1763ko ikasturte bukaeran jendaurrean defendatu ondoren. Hitzaurre honetan,

CALATAYUD

Hiri honek zerikusi bikoitza du J.A. Mogelek: bere aurrekoak handik ibiliak ziren, gutxienez, eta Joan Antoniok berak hango jesuiten ikastetxean ikasi zuen. Hona, gainera, ikasle zela Mogelek han hitz-aurreztatu zuen Filosofi ikasliburua (1763).



Peñafloridari eskainia, giza eredu modura goraiatzeko du berori Mogel gazteak, zientzia esperimentalei eta ilustrazioari jera eginez.



MARKINAKO ARIMAZAIN

Teologiako ikasketak beste nonbait egin ondoren apaiztu zen, eta 1770etik aurrera, Markinan bizi. Lehen urte hauetako sermoi batzu gorde dira, bizkaieraz orain arte zaharrenak eta letra ederrekoak.

Beata bategan sobera fidatuta, zenbait neska gazteren zuzendaritza izpiritualetan agertutako liluramendu eta jokaera nabarmendu zen eta inkisizioak epaitu eta zigortu egin zuen 1779an.

1787an Markinako Karmengo iturrian (hirian garai horretan egin ziren obra handien erakusle) grabatutako bertsoak gure idazlearenak dira:

*Carlos Irugarrena
Vízcaico Jaun dala
Marquínaco uri(j)ac
eguin nau onela*

*Ugarteco achpeetan
daucat jatorrija
Ubide saconetan
ecarri ugarija*

*Ur-au ederra zala
esanic aitubac
alan arindu dira
neque ta castubac.*

KARMENGO ITURRIA
Markinako iturri honetan irakur daiteke
J.A. Mogelen zenbait bertso.

1788tik aurrera Markinako kura parroko edo, berak idatzi ohi zuenez, «arimazain» izango da. Gaixo batzuei laguntzen ari zela kutsatuta hil zen.

MARKINA

Joan Antonio eibartarra bazen ere, urte batzuetan Deban bizi izan zen, eta laster, mutil koskorra zela, eta gero, apaiz bezala, bizitza Markinan eman zuen 1770etik aurrera.



IRAULTZARI KONTRAKARREAN

1789ko Iraultza Frantsesak eta beronek gure artean izaniko era guztietako ondorioek, batez ere Konbentzioko Gerrak (1793-1794), gogor markatu zuten J.A. Mogel, eta honen jokabidea eta idazlangintza baldintzatu. Erlijioaren defentsa izango da mendea bukatu arte haren kezka nagusia. Apaiz frantses ihesi bat ostantatzen du, eta, erlijioari buruz zuzentasun-ardura gehiegizko bat erakutsiz, Bizkai aldean frantsestatuen eskuetan zebilen zenbait paper eta gazetaren zabalpena Inkisizioari salatu ez-ezik, erakunde honetan liburu-ikustatzaile izango da. Bestalde, Pascal-en gogamenen atal bat

KONSTITUZIO ZIBILA (1790)

Iraultza Frantsesak Elizari eta eliztarrei egoera sozio-politiko berri bat sortu nahi izan zien. Aldakuntza eta pertsegiziotik ihesi, hainbat elizgizon etorri zen Hegoaldera ere. Mogekek, ahal izan zuen babesa eskaini zien. Irudia: Garaiko karrikatura.



euskaratu eta asketika eta mistika taxuko idazlan bat moldatuko du, dama gazte baten konbersioaren historia alegia, egilearen ahaleginei esker gertatua: *Vida edificante de la sierba de Jesus Sor D.^a M.^a Ignacia de Sta. M.^a Magdalena, y Ubilla, Religiosa Profesa y de Coro en el Convento de las Mercedarias de Marquina* (Burgos: Imprenta Aldecoa, 1927).

COMPENDIO HISTORICO (1793)

Garaiko argitalpen eta geroko historiografian hain eztabaidatua izan den Konbentzioko Gerrateko gorabeherak argitu edo zuritu nahirik idatzi zen Mogelen garaiko liburu hau



SORTERRIETA HIZKUNTZAREN ALDE

Mende bukaeran, Foruen aurkako eta hauengandik berezi ezinekoak ziren euskararen kontrako erasoek (Godoy, Lorente, Traggia, etab.) kikildu ordez, bultzatu baizik ez zuten egin; atzerritar eta espainiar euskaltzaleek (Humboldt, Hervás... are gehiago, ats eman zioten euskararen alde sutsu ekiteko. J.A. Mogelek etxeko hizkuntza Euskal Herriaren aspaldiko sinbolo politiko-kulturalen artean aurreneko tokian jarri nahi du (ohizko kantabrismoa, Tubalen Espainiarako etorrera, erromatarrengandiko independentzia eta ituna monoteismoa eta abarren artean, alegia), horrela, fuerista baina euskaltzale ez direnen aurka agertuz.

GODOY

Karlos IV.aren Ministrari honek (1792-1808) Euskal Herriarekiko pentsaera zentralista bat indartu nahi izan zuen. Horretarako euskal historiaren eta euskararen interpretazio berri bat eman zen, Godoy-k ofizialki babestu zituen argitalpenen bidez.



Haren eritziz, euskara, bere aintzinasunean aldatu gabe gordea, ez da soilik eskubide historiko batzuen frogabide nagusia. Euskaldunen jaiolur edo jaioterriko hizkuntza ere bada («idioma patrio»). Eta, beraz, elizgizon eta eskolatuen zeregina zatekeen — euskara, aberatsa eta landua izateko gai denez gero— hizkuntza garbitzea, forma jatorrak batzea eta apaintzea, hau da, garai hartako diglosia lotsagarriari aurre egiteko euskara berreraikitzea eta idazteko ereduak (hiru euskalki nagusietan) finkatzea. J.A. Mogelentzat euskaraz irakurtzea eta idaztea ez da zaila, eta, gainera, euskalki batetik besterako aldeak funtsean huskeria bat dira. Baina honetarako euskarazko liburuak eta hiru euskalkietako hiztegi bat (Añibarrok burutuko zuena) guztiz premiazkoak dira, haren iritziz.

DICCIONARIO GEOGRAFICO-HISTORICO (1802)

Espainia osokoa izango omen zen hiztegi historiko hau, Euskal Herrira bakarrik mugatu zen. Garaiko politikariaren interesei zegokien mugapena noski.



LIBURUAK ARGITARATZEN

1800-1804 urteetan idatzi zituen J.A. Mogelek bere obra gehienak eta, gainera, premiazkotzat joaz, euskarazko liburuak argitaratzera jo zuen, Añibarrok bezala. Honetan ere Bizkaian aitzindari gertatu ziren.

Baina euskal liburuak argitaratzeko orduan Borbondarren eragozpenak ez ziren gutxitu, alderantziz baizik. Baimena ematea korrejidorearen eta beronen kontseiluaren esku zegoen soilki. Eta hauek ez ziren euskaltzaleak.

ZENTSURA (1800)

Liburu hau argitara ahal izateko Mogelek Madrilera jo behar izan zuen, Euskal Herrian ezarrita zegoen zentsuraren kontra. Handik M.L. Urkixo Ministrari bilbotarrak lagundu zion trabak kentzen.



Eskerrak Mariano Luis de Urkijo bilbotar ministrariaren bidez baimena lortu zuela bere lehen obra argitaratzeko, hurrengoei bidea erraztuz: «Su Magestad ha dirigido una Orden al Consejo Real de Navarra para que no se oponga a la impresión de esta Obra, ni de otra alguna por ser bascongada, siempre que no contenga alguna doctrina opuesta a nuestra Santa Religión. Qué triunfo para nuestro perseguido idioma!»
(Prospecto de una obra bascongada intitulada «Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean eracasteac».)

M.L. URKIXO (1768-1817)

Bilboko semea zen ata, jatorriz, arabarra. Bizkaiko Diputatu Nagusia izan zen; Estatu-Idazkaritzako buru ata Londres-en enbaxadari izan ondoren, 1799an Estatu-Ministrari bilakatu zen, Napoleon-en politikak ardurara hori utzi erazi zion arte. 1808-1813etan Jose Bonaparteren Ministrari izan zen, eta erbestera irteten behar izan zuen. Parisen hil zen. Mogelek eskerronez gogoratzen du Urkixo.



DOTRINAGAIAK

Aipatu obra hau (Iruñea: Ezkerro, 1800) gipuzkeraz eman zuen. Euskalki honetan argitaratzen hasi zen, bada; baina, bizkaitarrek ere beste hainbeste nahirik, haren parte bat bizkaieraz moldatu zuen: *Confesino ona* (Vitoria: F. Larumbe, 1803). Beste batzu ere idatzi zituen erlijio gaiez: *Cristau eracastle euscalduna* (argitaragabea), gipuzkeraz, eta dotrina luze eta labur bana, bizkaieraz. Dotrina luzea, itaun eta erantzunez eratuta nagusientzakoa da, eta irakurtzeko moldatua.

KALAGURRIKO SINODALAK (1700)

Elizaren hizkuntz politikaren parte bat, bederen, lege eta erabaki hauen bidez arautu zen Kalagurriko Diozesian (berau bait zen Iruñekoarekin batera Hegoaldea hartzen zuena). Sinodalei esker ere ekin zioten apaiz euskaltzale saiatuenek idazteari. Mogel da hauetako bat.



Lapurterazko katixima batekiko menpekotasun lar erakusten du. Hala ere, Mogel haztamuka dabil hemen, bidea urratzen ari zen eta.

Dotrinagai hauek apaiz eta irakurle euskaldun maila apaleko eta eskola gutxikoentzat dira, baina euskara landu batetan. Egileak adiskidetasunezko harremanak izan zituen bere lankide eta euskal idazle ezagun Añibarro eta Agirre Asteasukorekin.

J.A. LLORENTE (1806-1808)

Botere zentralaren zerbitzuan idatzi zuen Llorente kalonjeak; oihartzun zabala izan zuen gure artean haren *Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas* obrarekin. Mogelek ez zuen ezagutu hau, baina bai berori ahalbideratu zuen giro politikoa.



KULTURAZ JANTZIEI

Mogelen beste obra batzu euskaldun eskolatu edo erdal kulturaz jantziei euskararen balioa erakusteko idatziak dira: *El doctor Peru Abarca*, *Versiones bascongadas* eta *Fábulas*. Literatur obra jatorrak dira, neoklasikoak, irakasteko asmo, genero eta forma literarioen aldetik. Adibidez, herri-ipuak gaitzetsiz, alegi edo ipuin «onak» idazten ditu.

TERMINOLOGIA

Peru Abarca-ren erdarazko sarrera luzean ikus daitekeenez, J.A. Mogelek euskararen terminologiaren premiaz eta irtenbide ezberdinez hitz egiten digu.

Hala ere, *Peru Abarca*-ko herri-kanta, bertso, atsotitz eta abarren biltze nahiz hirietako bizimoduaren kritikagatik preromantizismoaren ukitua nabaria da. Bertsolaritzak, Mogelentzat, euskaldunen berezitasuna erakusten du: «ningún rústico castellano es capaz de versear arregiadamente». Bera dugu lehena, agian, alde honetatik eta beste batzuetatik (neurkera, kantua, trinkotasuna), bertsolaritzak duen balioa jasotzen. Herriaren emaitza den orok berezko balioa du Mogelentzat.

Genero eta hizkuntza-maila ezberdinetakoak dira eta, adibidez arenga batzutan berbeta-modu jaso eta bikaina erdiesten du egileak.



PERU ABARKA

Peru eta Maisu Juan-en arteko elkarrizketa eta jazoera iruditauk osatzen dute obra honen atalik nagusia. Peru baserritarra kristau eta euskaldun onaren eredu jartzen digu Mogelek; euskaraz jator eta behar bezala hitz egiten dakien eredu gisa, alegia. Aldiz, Maisu Juan, kaletar eskolatu eta euskaraz trakets egiten duena, kristau eta euskaldun txar baina onbideragarriaren iruditatzat aurkezten digu. Nolanahi ere, pertsonaia errealistagoa eta begikoagoa gertatzen da Maisu Juan.

PERU ABARKA (1802)


Obra hau da J.A. Mogelek euskaraz utzi zigun obra literarioirik bikainena; baina ia laurogei urtetako atzerapenarekin eman zen argitara (1881).



Beste zenbait atal desberdin ere bada, obraren osagarri: gaztelerazko hitzaurre bat, Fr. Pedro eta D. Juanen arteko elkarrizketa (Añibarro eta Mogel beraren irudi), latinetik itzultitako berbaldi batzuk, erretorika-eredu zirenak (gipuzkeraz eta hitzaurre batekin argitaratu zituen *Versiones bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores autores latinos* izenburupean, eta azkenik, hitz-zerrenda bat, baserritarren ahotan oraindik bizirik zirauen zenbaitek osatua.

FRANTZISKOTARREN LIBURUTEGIA (Zarautz)

Liburutegi honetan egon zen, gordeta, Mogelen Peru Abarkaren argitaragabeko eskuizkribua, baina ez, bitartean, eskuzko zenbait kopia Euskal Herrian zabaldu gabe. Joan Jose ilobaren eta Aita Untzueta frantziskotarraren bidez iritsi zen originala liburutegi hartaraino.



Mintzagai askotarikoak erabiliz — baina hizkuntza bera batez ere— euskal hitzen garbitasun, aberastasun eta elokuentziarako ia iotasuna erakusteko moldatu zuen obra hau. Euskararen balioa erakutsi nahiaz gainera, euskaldungoari buruzko egilearen pentsamendua agertzen da. Bestalde, historia eta etnografía aldetik zinez baliotsua da, garai hartako bizimoduaren hainbat zertzelada jasotzen denez gero.

Obra hau luzaz egon zen argitara gabe. Idatzi zen garaian (1802) ez zatekeen argitara erraza, baimen arazoaz gainera, dadukan kritika sozial eta politikoagatik, hots, auzi luzeak justizi gizonak eta abar zorrozki astintzen bait ditu eta, agian, pentsamoldeagatik. XIX. mendean kopia aunitzen bidez ezagutua izan ondoren, Pizkunde garaian argitaratu zen (1881).

Peru Abarka-k finkatu zuen bizkaiera euskalki literario gisa, egilearen ospea —bere bizian dotrina liburuek eman ziotena— geroztik liburu honi eta idatzita dagoen euskalkiari lotuz. J.A. Mogelen bizkaiera-modu hau Sabin Aranak, Bonaparte-ren eskutik jasota, eredutzat jarri zuen.




LEHEN EDIZIOA (1881)
Hauxe da *Peru Abarka*-ren lehenengo edizioaren azala.

ALEGIAK

J.A. Mogel dugu lehen euskal alegilaria, hitz neurtuz nahiz lauz. Gipuzkeraz baina batez ere bizkaieraz landu eta idatzi zituen ipuinok, iloba Bizentari ere irakatsi eta hizkuntza eta euskalki batetik bestera itzuleraginez.

ALEGIAK

Iloba Bizentaren liburu honetan eta Aita Zabalarenean Joan Antonio Mogelen alegia batzuk ere ageri dira, idazlearen kezka didaktikoak ispilatuz.




Hitz-lauzko mordo bat Bizentak argitaratu zituen, gipuzkeraz (*Ipui Onac*, Donostia: A. Undiano, 1804), osabaren hitz neurtuzko zortzi ere sartuz. Askoz gehiago idatzi zituen, ordea, jatorrizko eskuizkribuak galdu bide direlarik. Zorionez, neurtitezkoek Bizenta Mogelek ez-ezik, Juan Mateo Zabalak (*Fábulas en dialecto bizcaino*) eta Jose Antonio Uriarte frantziskotarrek (*Poesía bascongada. Dialecto bizcaíno*) beren alegi-bildumetan jaso zituzten, idatzi eta urtetara izan bazen ere.



13

GAZTELERAZKO OBRAK

Gazteleraz ere idatzi zuen zenbait obra (berandu argitaratu zirenak), etxeko eta kanpoko jakintsuei euskararen antzintasuna erakusteko, etimologietan oinarrituz (nahiz eta huts egin usu): *La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma vascuence* (J. Garatek argitaratua, Bermeo: Gaubeka, 1936, 1937), *Disertaciones* (hauetako bat «Disertación histórico-geográfica sobre los íberos y sicanos que entraron en el Lacio y territorio de Roma introduciendo el idioma vascuence», *Memorial Histórico-Español* delakoan argitaratua, VII, 1854), *Apología de la lengua bascuence contra las erradas ideas y conjeturas de D. Joaquín Traggia* (Euskalerra 1891, XXV.etik aurrera) eta *Correspondencia epistolar con D. José Vargas Ponce*.



J. VARGAS PONCE (1760-1821)
Histori Akademiaren zuzendari honekin eskutitz-harreman interesgarria izan zuen J.A. Mogelek. Vargas-en paperetatik kaleratu ziren gero (1854), Madrilen, eibartarraren ideia linguistikoak: *Cartas y disertaciones de don Juan Antonio Mogel sobre la lengua vasconga*.

W. Humboldt bezala euskara Espainia osoko jatorrizko hizkuntza zela uste zuen. Aipatu *Apología*, beste *Diccionario Geográfico* (1802) ospetsu hartan euskarari buruz esane lehen erantzuna zen, baina argitalpena ezina gertatu zen.

J.A. Mogelek, izan zuen harremanik zenbait jakintsurekin ere: Vargas Ponce historilariarekin (gutun-bilduma interesgarri bat gorde da), W. Humboldt-ekin (honen erreguz itzuli zituen latinezko arengak, Mogelek bere aldetik Lelo-ren kantua ezaguterazi ziolarik) eta Hervás filologo ospetsuarekin, baita José María Murga eta Adiskideen Elkartearekin ere. Kultur erakunde honetan zenbait obra aurkeztu zuen gainera, eta «bazkide idazle» izendatu zuten.

LELOren KANTA (1529)

Markinako Jauregi honetan ezagutu zuen Mogelek Antzinatekoa uste izan zuen kanta hau. Beronek eman zion ezagutzera W. Humboldt-i ere. Joan den mendeko euskal legendetako bat izan zen kanta honena.



ONDORIOAK

Juan Antonio Mogel euskal ilustrazioaren emaitza beranduko baina euskaltzaleena izan zen, Paulo P. Astarloarekin batera europar nazionalismoaren garaian eta babesean. Larramendi, Kardaberaz eta Mendibururi jarraituz, erlijio-gaiez idatzi zuen, hizkuntza landu eta apaindu batean. Baina, erlijio-gaiez at, literatur mailako obrak ere idatzi zituen, bere burutik sortuak nahiz bere moduan itzulitakoak. Guztien artean

aipagarriena Peru Abarka ospetsua dugu. Obra ez ohizko hau, batetik, garaiko dokumentu gisa aberatsa da alderdi askotatik (historia, etnografia, e.a.). Hizkuntza aldetik interesgarria da, lexiko arloan besteak beste, hitz zaharrak eta teknikoak biltzen baititu. Literatur balioen ikuspegitik obra honetan jenero eta forma desberdinak lantzen dira, berauetan neoklasizismoaren tradizioa nagusi izanik, eta antzerti edo elaberri jenerotik hurbil dagoelarik.

15

«J.A. MOGEL HAUZUNEA»

Idazlearen oroimena berrikitan euskal kultur azalpenetara eta herrietako kaleetara iritsi da. Hemen Eibarko auzo baten izena.



Mogel bizkaiera literarioa deitu tradizioaren sortzailea izan zen, Añibarroekin batera. Baina bi bide ezberdin hartu zituzten: Añibarrok bizkaieramodu zabalago batean idatzi zuen bitartean, markinarra bere herriko euskara ospetsuan oinarritu zen, azken eredu hau jarraikiagoa gertatu zelarik XIX. mendean.

Baina bizkaieraz bezainbeste gipuzkeraz idatzi zuen Mogelek, baita lapurteraz zatitxo batzu. Izan ere, euskalkien arteko aldeek eta euskaldunek elkar ulertzeko zituzten eragozpenek kezkatzen zuten gure egilea eta, ilustratu gisa, «Irurak bat» goiburua bere eginez eta arrazoibidez jokatuz, euskal liburuak eskaintzeari ekin zion, Europako herri kulturaz jantziek beren nazioa jaso eta goratzeko egin ohi zuten bezalaxe.

BERGARAKO ERRET MINTEGIA
Mogelen egunetan itzal handia izan zuen «Adiskideek» gidaturiko ikastetxe honek.

